

MOZIOA

Aire kalitateari buruz abian dagoen ikerketaren inguruan

Aire kalitateak kezka sortzen du Hernaniko herritarren artean. Gogorarazi behar da aire kalitatearen indizea neurtzeko eskumena Eusko Jaurlaritzak duela. Eusko Jaurlaritzak Hernaniren airearen kalitatea neurtzeko estazio finko bat dauka anbulategiaren gainean eta bere webgunean emaitza eguneratuak argitaratzen ditu. Datu horien arabera, Hernanin arnasten dugun airea ona edo oso ona da.

Hala ere, herrian maiz somatzen den usainak kezka sortzen du herritarren artean. Hernaniarron kezkak eta zalantzek arduratuta, 2016an Udala harremanetan jarri zen Kataluniako Unibertsitate batekin aire kalitatearen neurketa zehatzagoak egiteko.

Azterlana ardura duen Laboratori del Centre de Medio Ambient-Universitat Politecnica de Catalunya hezkuntza zentroak hainbat datu eskatu zizkion Udalari.

- Isurketak egin ditzaketen jardueren ingurumen baimena. Hernanin daude enpresak bere jardueragatik emisioak egin ditzaketenak. Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatu zizkion bere PVaren (Ingurumenaren Jarraipen Plana) barruan Hernaniko enpresa garrantzitsuen ingurumen baimena.
- Autopista eta garraio bideen zirkulazio kopurua. CO2 isurketak kalkulatzeko datuak.

Datu horietan oinarrituta, hainbat lan egin ditu Laboratori del Centre de Medio Ambient-ek:

- Industria jardueraren inpaktuaren modelizazioa
- Hernanin emisioak sortuko lituzken arazoaren kuantifikazioa eta balorazioa
- Garraio bideak herri osoan sortzen dituzten arazoaren balorazioa
- Eusko Jaurlaritzak jasotzen dituen datuen interpretazioa

Neurketak 2017ko azken hiruhilekoan egin zituzten. Adituen arabera, neurketa horiek puntualak izan ziren eta emaitzak ez dira adierazgarriak. Horren ondorioz, Laboratori del Centre de Medio Ambient-ek proposatu zuen neurketa zehatzagoak eta denboran luzeagoak beharrezkoak direla ondorioak behar bezala baloratzeko.

Hartara, datorren urrian hasita eta hiru hilabetez neurketa zehatzagoak, luzeagoak eta, beraz, adierazgarriagoak egingo dira puntu hauetan: Zikuñagan, Florida-Etxeberri, Sagastialde, Portu eta udaletxean.

ESKAERA

Udalak datuak eskura dituenean, Eusko Jaurlaritzako arduradunei datu horien berri ematea eta neurriak hartzeko eskatzea hernaniarrontzat kaltegarriak izan daitezkeen isurketak gutxitzeko.